

EZ DOZENTEEN GATAZKA KOLEKTIBOA IRABAZI DUGU

PUBLIKOAREKIKO %95eko EKIPARAZIOA DAUKATE

Dakizuenez, STEE-EILAS sindikatuak 2011ko azaroan gatazka kolektibo demanda bat sartu zuen EAEko Tribunal Gorenean Patronalek ez dutelako bete 2008-9ko Gizarte Ekimenezko Ikastetxeen hitzarmenak irakasle ez diren langileentzat finkatzen dituen lansariak. 2012ko otsailaren 14an, epaiketa izan zen Bilbon. STEE-EILASek eskatu zion Auzitegiari Patronalek %95ko ekiparazioa bete dezaten eta berehala egin dezaten hiru urteko epea 2011ko urtarrilaren 1ean bete zelako. EAEko Tribunal Gorenak arrazoia eman zigun; 2012ko otsailaren 28ko sententzian Kristau Eskola eta AICE patronal erakundeak %95ko ekiparazio konpromezua betetzera kondentazen zituen, eta horrelaxe zion:

“tenemos que declarar la procedencia de aplicar al personal no docente inserto en el en el Convenio Colectivo de los Centros de Iniciativa Social de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y con efectos de 1 de enero de 2011, la equiparación retributiva al 95%, respecto a las retribuciones percibidas por el personal no docente del sector público de enseñanza de la citada Comunidad Autónoma; condenando, en consecuencia, a Kristau Eskola y AICE” (gaztelaniaz soilik eman zuten)

Momentu hartan, Patronalei eskatu genien helegiterik ez egitea eta hartutako konpomezuak betetzea, gatazka alferrikan ez luzatzeko. Ez zuten kasorik egin eta Epaitegi Gorenaren aurrean errekurtsio aurkeztu zuten. Pasa den urtarrilaren 22an, Madrileko Epaitegi Gorenak epaia eman zuen Patronalen helegiteei uko eginez. Beraz, 2008-09ko Ekimenezko Ikastetxeen Hitzarmenaren barruan dauden zentru guztiek langile ez irakasleen soldata publikako pertsonalen soldatarekin %95a baliokidetu egin behar dute, behean agertzen den taula kontua izanez eta 2011ko urtarrilatik hona sortu diren atzerapen guztiak ordainduz.

Beraz, eta gehiegi luzatu gabe, uste dugu irakasleak ez diren pertsonen otsaileko nominak ekiparazioa onartu eta 2011ko urtarrila geroztik izandako atzerapen guztiak jaso behar duela. STEE-EILASek irakaslea ez den pertsonalari laguntza emateko hitz ematen du ekiparazioa lehenbailehen hezurmamitu dadin. Arazorik izanez gero, animatu eta harremanetan jar zaitez ikastetxeko gure ordezkariekin edota egoitzeko irakaskuntza pribatuko arduradunekin. Zure lansarien inguruko kezka eta zalantza guztiak argituko dizkizugu eta baita zure ikastetxeak hitzarmenak eta epaiak markatzen duten %95eko ekiparazioa ez betetzea erabakiko balu eman beharreko urratsak ere.

Zure ikastetxeak Lan Hitzarmena eta epaia betetzen baditu hauexek dira irakaslea ez den pertsonalari dagozkion lan sarien taula berria eta atzerapenak. Irakaskuntza publikoan ez dauden kategorien kasuan, uste dugu Interpretatzeko Batzorde Mistoak (IBM) ezarri behar dituela baliokidetasunak eta lansarien taulak osatu 2008-2009ko hitzarmenekoak ezartzerakoan erabilitiko irizpide berak erabiliz.

Hezkuntzan STEE-EILAS

ARABA: Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Deskalzos, 72 (Ionja)	31001 Iruñea	948212355	948229790	nafarroa@stee-eilas.org

	Hilabeteko soldata	Urteko soldata	Atzerapenak 2011ko urtarriletik 2013ko urtarrila arte (29 hileko)
<u>IRAKASLEAK EZ DIREN TITULUDUNAK</u>			
Goi-mailako tituludunak	2.597,58	36.366,17	<i>Atzerapenik gabe</i>
Erdi-mailako tituludunak	2.234,99	31.289,99	<i>Atzerapenik gabe</i>
Hezkuntza-laguntzako espezialistak	1.771,85	24.805,90	2.554,90
<u>ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK</u>			
Gerentea		IBMk erabakiko du	
Administrazioko edo idazkaritzako burua	1.824	25.537,16	1.402,91
Buleguko burua		IBMk erabakiko du	
Ofizial administraria	1.661	23.257,35	4.410,10
Administrari laguntzailea	1.650	23.100,57	7.644,94
<u>LANGILE LAGUNTZAILEAK</u>			
Ikasle-begiralea		IBMk erabakiko du	
<u>ZERBITZU OROKORRETAKO LANGILEAK</u>			
Etzezaina	1.542,37	21.593,22	28,13
Atezaina	1.516,00	21.224,09	3.043,16
Zaintzailea, gauzaina		IBMk erabakiko du	
Mantenimendu, lorategi eta hainbat ofiziotako langilea	1.719,28	24.069,92	10.039,78
1º mailako ofiziala, 1º mailako ofizial gidaria	1.731,63	24.242,84	6.872,52
Gobernatzailea		IBMk erabakiko du	
Garbiketa, josteta, ikuzketa, lisaketa eta jantokiko langilea	1.439,46	20.152,53	1.926,14
Sukaldeko burua		IBMk erabakiko du	
Sukaldaria	1.536,63	21.512,83	11.887,68
Sukaldeko laguntzailea	1.428,61	20.000,60	508,84
2. mailako ofiziala, 2. mailako gidaria		IBMk erabakiko du	
Langile ez kualifikatua	1.428,61	20.000,60	1.409,16

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 📠 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 📠 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 📠 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Deskalzos, 72 (Ionja) 31001 Iruñea 948212355 948229790 nafarroa@stee-eilas.org